Sarako eliza bete-betea zen Paul Dutournieren azken omenaldian

Ipar eta Hegoaldeko politikari asko izan zen hiletan

Paul Dutournier Sarako auzapez ohiaren hileta elizkizuna atzo goizean izan zen Saran, bere sorterrian. Ipar eta Hegoaldetik alderdi politikoetako ordezkari asko izan zen, hala nola, EA, EAJ, RPR, UDF eta PPko kideak.

M. ESTEBAN / **SARA**



Jende ezagun anitz hurbildu zen atzo Sarara. M.E.

Sarako biztanleek beren alkate ohia omendu zuten atzo. Sarako eliza bete-betea zen, meza zazpi apaizek egin zutelarik. Mixel Idiart Azkaineko erretorea eta Dutournieren lagunak Lapurdiko Auzapezen Biltzarreko lehendakari ohia omendu zuen adieraziz «mugarik ez zuen ezagutzen Euskal Herrian» eta «mota guztietako jendeekin harremanetan zegoen».

Egia da jende mota ezberdinetakoak zeudela Sarako elizan atzo. Herritarren artean egon ziren Carlos Garaikoetxea EAko lehendakaria, Jose Mari Muñoa Eusko Jaurlariztaren izenean, Joseba Egibar EAJko bozeramailea, Didier Borotra Miarritzeko alkatea eta UDFko kidea, Gregorio Ordoñez PPko ordezkaria, RPRko ordezkaria eta hainbat alkate, Baztan, Donibane-Lohizune eta Senpere eskualdeetakoak besteak beste. Jean Haritxelhar Euskaltzaindiko lehendakaria eta Sapede suprefeta ere bertan izan ziren.

Lakat eta Xanpun bertsolariek Dutournieri bertsoak eskaini zizkioten Euskal Herria maite zuela eta «mugaz gainetik anaiarrebak hurbildu» zituela.

Dutournieren kutxa, hilobian sartu zuten ikurriaa eta frantses banderaren artean. Sarako auzapez ohiak II Mundu Gerran hartu zuen parte eta gudari ohiak bertan egon ziren. Bestalde, euskaltzaletzat ezagutua zen Dutournier, eta Iparraldeko EAJko kide asko mezan zeuden Ximun Haran Ipar Buru Batzarreko lehendakariarekin batera.

Paul Dutournier joan zen larunbatean hil zen 83 urte zituelarik, Baionako ospitalean. Istripu larria izan zuen urte honen hasieran.

Tuterako PSN berregituratuko duen batzordea aurkeztu dute

TUTERA

Javier Otano PSN-PSOEko idazkariordeak Tuterako udal talde sozialistaren berregituraketaz arduratuko den batzordea aurkeztu zuen atzo. Jakina denez, bertako talde sozialista iragan abenduan desegin zuen PSOEko zuzendaritzak, Iruñeko Sarasateko egoitzatik hala eskatu eta gero. Desegitearen ondorioz, Otanok bakarrik eutsi zion alderdiko karnetari eta PSNk bere esku utzi zuen udal talde berria osatzea.

Otanorekin batera, Alberto Tantos, Felix Lafuente, Conchita Puyo eta Angel Salasek osatuko dute Tuterako PSN berregituratuko duen batzordea. Puyo eta Salas ez dira sekula PSNko kide izan. Hori dela eta, Jose Antonio Perez Sola Tuterako alkateak gogor kritikatu zuen joan zen astean horien izendapena. PSNtik kanporatua izan zen Perez Solaren iritziz, «iraingarria da alderdia inoiz ideologia sozialista eduki ez duten batzuen esku uztea. Are gehiago, horietako bat Izquierda Unida inguruan dabilela uste dut». Hala ere, alderdian berriro onar dezaten eskatuko duela iragarri du alkateak.

Javier Otanok ez zuen argitu PSNtik kanporatuei alderdiko karneta emango dieten ala ez. Parlamentuko buruak azaldu zuenez, lehenik eskaera jaso beharko dute eta, hori aztertu ondoren, erabaki zuzena hartu. Dena den, Tuterako PSNko kide berriek «alderdiaren eta Tuteraren interesak euren interes pertsonalen aurretik» jarri beharko dituztela ohartarazi zuen.

Tuterako PSNko krisia 1991ko udal hauteskundeetan hasi zen; udal taldearen berrikuntza zela eta areagotu egin zen eta iazko abenduan jo zuen gaina, Madrileko zuzendaritzak bertako taldea desegiteko agindua eman zuenean. Otanok esan zuenez, «batzorde berriaren lanak krisia itxiko duelako ustean gaude. Kapitulu hori amaitutzat jo nahi dugu, alderdia indarrez has dadin berriro. Lasaitasunez ariko gara eta pare bat hilabeteren buruan 30 edo 40 kide izatea espero dugu, Tuterako talde sozialista berria aukeratzeko moduan».

Gaztediaren Kontseiluak dio Jarraik ez duela ezagutzen

BILBO

Gaztediaren Kontseiluak erakunde honen errealitatea ez ezagutzera leporatu dio Jarrairi, eta era berean errealitate hori «manipulatzea». Jarraik joan den astean egin zizkion kritikei horrela erantzun die Gaztediaren Kontseiluak, atzo kaleratu zuen agiri batean. Gaztediaren Kontseiluak interes alderdikoiez jokatzen duela, eta zenbait gazte talde baztertzen dituela uste du Jarrai gazte taldeak.

«Ezagutzen ez dituzten gaiekin eta askotan manipulatu ere egiten dituztenekin egin dituzte akusazioak, oso arin» adierazi du Gaztediaren Kontseiluak. Lurralde batzuetan gazte elkarteek gutxienez 200 kide izan behar dituztela Kontseiluan parte hartzeko azaldu ondoren, lan batzordeetan denak egon daitezkeela dio. Bestalde, Kontseiluaren erabaki guztiak batzarrean hartzen direla dio atzoko agiri horretan, «ez zaie kanpoko inoren azalpenei jarraitzen».

APIRILAREN 1etik EKAINAREN 25era

Aurten, hiru garrantzizko berrikuntza

Aurten,1992ko errenta eta ondare aitorpenean, garrantzia duten hiru berrikuntza sartu dira, zure aitorpena erraz eta bizkor egin dezazun.

Sistema mekanizatua aukera dezakezu

Zergadun guztiek aukera dezakete Aitorpena aurkezteko sistema mekanizatua, hala nahi izanez gero.

Aurretiazko zita

Zure aitorpena Antso Jakitun edo Sekundino Esnaolako bulegoetan aurkeztu behar baduzu, aurretiazko zita zerbitzua eskeintzen dizugu.
Eguna eta ordua zehazteko, deitu honako telefono hauetara martxoaren 26tik aurrera:
■ 32 01 66 Gazteleraz ■ 32 02 50 Euskaraz

Eta nahi izanez gero, disketean aurkeztu

Aitorpena aurkezteko modalitate arrunta aukeratzen baduzu, inprimakia paperean edo euskarri magnetikoan bete dezakezu.



Aitorpen mekanizatua egiteko inprimakiak, etxean jaso ez badituzu, modalitate arrunteko inprimakiak eta disketea, Prim kaleko 1. zenbakian dauden ogasun bulegoetan eta estankuetan erosi ahal izango dituzu.



ARGIBIDE GEHIAGO
42 19 49

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua